

UDALBURUA
Josu Artetxe

AIARAKO UDALAK 2014ko URTARRILAREN 30ean
EGINIKO OHIKO OSOKO BILERAREN AKTA.

ZINEGOTZIAK

Lauren Uria
Esteban Hernando
Aitziber Alava
Garbiñe Alaña
Julio Etxaurren
Esmeralda Martínez
José Antonio Bartolomé
Iratxe Parro
Iraida Saenz de Lafuente
José Luis Pedruzo

Arespalditzan, udaletxeko bilkuren aretoan, bi mila eta hamalauko urtarrilaren hogeita hamarrean, hemeretziak direnean, Udaltzara Osoa bildu da ohiko bilera egiteko. Josu Artetxe Arana alkate jauna da burua eta albo batean adierazitako zinegotziak bertaratu dira, behar bezala deituta, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedaturikoaren arabera. Neuk, Naiara Lazpita Marcos idazkari andreak, lagundu ditut eta ekitaldiaren fede eman dut.

Jarraian, eguneko aztergaien zerrendan dauden gaiak jorratu dira.

IDAZKARIA

Naiara Lazpita

Alkate jaunak arratsalde on esan eta Udaltzara ongi etorria eman die guztiei.

Ondoren, eguneko aztergaien zerrendan gaineratutako puntuak jorratu dira.

1.- Onestea, bidezkoa bada, 2013ko abenduaren 19an eginiko Ohiko Bilkuraren akta.

Horren inguruko adierazpenik egin ez denez, akta onetsi da korporazio-kide guztien adostasunez.

2.- Arabako Foru Aldundi txit goreneko Toki Administrazio Sailak Udal honetara bidalitako idazkiaren inguruko mozioa, Toki Erakundeei Erabiltzaileen Arretarako Zerbitzu Informatikoa ez eskaintzeari buruzkoa.

Josu jaunak (BILDU) aipatu du arraroa gerta litekeela mozio bat aurkeztea osoko bilkuran eztabaidatzeko, izan ere, Informazio Batzordean jada esan zen Aldundiak idazki bat bidali zuela eta bertan atzera botatzen zela zerbitzua kentzeko erabakia. Hala eta guztiz ere, ez zen zehazten nola emango zen zerbitzua, ez epea, ez ezer. Eta jarraitzeko esan du oraindik ere ez dakitela ezer horren inguruan.

Jarraian, Josu jaunak mozioa irakurri du, akta honetan **I. ERANSKIN** gisa jaso dena, eta premiari dagokionak zentzurik ez duela azaldu du.

Garbiñe andreak (EAJ) esan du aurka bozkatuko dutela, udaletara lehen idazkia bidali zenean, EAJK PPrekin hitz egin zuelako Biltzar Nagusietan, eta ekimen hori geldiarazi zen.

Horregatik mozioaren aurka bozkatuko dute, kontua konponduta dagoelako.

Josu jaunak (BILDU) aipatu du kontua zehaztu gabe geratu dela, ez dakite ezer eta beste gauza zehatzagorik izan arte mozioa aurkezten dela.

Iratxe andreak (AB) esan du bere taldea abstenitu egingo dela, badirudielako gaia geldiarazi dela, eta zerbitzua ematen ez dutela edo harekin zailtasunak daudela ikusten dutenean, orduan egingo dute dagokiona.

José Luis jaunak (PP) aipatu du aurka bozkatuko duela, ekimena geldiarazi delako.

Beste aipamenik egon ez denez, gaiari buruzko bozketa egin da eta hau izan da bozketaren emaitza:

Alde: 4 (BILDU).

Aurka: 5 (4 EAJ - 1 PP)

Abstentzioak: 2 (AB)

Ondorioz, mozioa ukatu da.

3.- Onestea, bidezkoa bada, Aiarako eta Artziniegako udalen arteko Lankidetzaren Hitzarmena, edozein udaletako pertsonak bi udalerrietan dauden Eguneko Arretarako Landa Zentroetan sortzen dituzten gastuei aurre egiteko, jatorrizko udalean ez daudenean.

Josu jaunak (BILDU) aipatu du, batzordean azaldu zen moduan, erabaki horri esker Arreta Zerbitzua dagoela eta Arespalditzako EALZ sustatzen duela.

Garbiñe andreak (EAJ) esan du bere taldea pozik dagoela erabaki horrek bide ona hartu izanagatik; izan ere, haiek egin zuten proposamena Udalbatza Osoan. Horrez gain, ildo horretan laguntzen jarraitzeko eta eskualde mailako hitzarmenak sinatzen jarraitzeko nahia adierazi du.

Lauren jaunak (BILDU) hitzarmen honen filosofia azaldu du: Artziniegako Udalarri egotziko zaion kostua plaza bakoitzeko kostua da eta ez du gain-kosturik udalerrian erroldatuta ez dauden pertsonak izateagatik. Helburua zerbitzua dinamizatzea da. Laurenek aipatu du filosofia hori izan beharko luketela egin daitezkeen eskualde mailako beste hitzarmen batzuek.

Horren inguruko beste ezer aipatu ez denez, gaia bozkatu da, eta aho batez onetsi da.

Eta hori dela bide, eta

HONAKO HAU IKUSI DA: Aiarako eta Artziniegako udalen arteko Lankidetzaren Hitzarmena, edozein udaletako pertsonak bi udalerrietan dauden Eguneko Arretarako Landa Zentroetan sortzen dituzten gastuei aurre egiteko, jatorrizko udalean ez daudenean.

HONAKO HAU IKUSI DA: Gizarte Ongizatea, Berdintasuna, Immigrazioa eta Funtzio Publikoa Informazio Batzordearen aldeko irizpena, 2013ko urtarrilaren 27an egindako bileraren ondoren.

Udalbatzak, aho batez, **ERABAKI DU:**

Lehenengoa.- Onestea Aiarako eta Artziniegako udalen arteko Lankidetzaren Hitzarmena, edozein udaletako pertsonak bi udalerrietan dauden Eguneko Arretarako Landa Zentroetan sortzen dituzten gastuei aurre egiteko, jatorrizko udalean ez daudenean.

Bigarrena.- Aiarako Udaleko alkateari eskumena ematea aipatu hitzarmena sinatzeko.

Hirugarrena.- Erabaki hau jakinaraztea Artziniegako Udalari, eta hitzarmenaren bi kopia eranstea, horietako bat behar bezala sinatuta aurkez dezan.

Laugarrena.- Erabakiaren egiaztagiria bidaltzea Arabako Foru Aldundi txit goreneko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari, horren berri izan dezan.

4.- Honako hauen berri ematea:

- **2013ko urritik azarora bitarteko kontaketa aktak.**
- **Gastu eta diru-sarreraren balantzea.**
- **2013ko urritik azarora bitarteko libreten egoera.**
- **2013ko urritik azarora bitarteko kreditu aldaketak.**

Idazkariak aipatu du ezin dela abenduaren berri eman, oraindik ere 2013ko fakturak iristen ari direlako, eta horregatik ezin izan da urteko kontabilitatea itxi.

Udalbatza jakitun geratu da.

5.- Alkatetza dekretuak:

- **Erref.- 465/13.-** Bitarteko funtzionarioa izendatzea Ikastolako atezaina ordezkatzeko gaixotasuna dela eta.
- **Erref.- 466/13.- J.M.U.S.M.-** Agiri gehiago eta fidantza eskatzeko Izorian garajea handitzeko eta tresnen biltegia egiteko obretako eraikuntza hondakinak kudeatzeagatik.
- **Erref.- 467/13.- Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzarra.-** Jarduera Sailkatuko Udal Lizentzia ematea “Hondakin-uren araztegi bat ezartzeko (unean dauden 2 putzu septikoen ordez)”, Menagarai herriko 6. poligonoko 680. lurzatian.
- **Erref.- 468/13.- Menagarai Beotegiko Administrazio Batzarra.-** Jarduera Sailkatuko Udal Lizentzia ematea “Hondakin-uren araztegi bat ezartzeko” Ibagüenen eta Etxaurren Ikastolan (2. poligonoa, 592. lurzatia).
- **Erref.- 469/13.- Onestea F/2013/13 zenbakiko fakturen kontabilitate zerrenda.**
- **Erref.- 470/13.- KPM.-** Obrarako Udal Lizentzia ematea, Zuatzen etxebizitza baten estalkia eraberritzeko.
- **Erref.- 471/13.- Arespalditzako Administrazio Batzarra.-** Obrarako Udal Lizentzia ematea, Arespalditzako 5. poligonoko 84. lurzatian dagoen eraikina eraberritzeko.
- **Erref.- 472/13.- Murgako Administrazio Batzarra.-** Diru-laguntza ematea Hirugarren Adineko Jardunaldiak-2013 jarduerako luncha antolatzeko gastuetarako.
- **Erref.- 473/13.- EHIGE.-** Diru-laguntza ematea, "Euskal Eskola Publikoaren 22. Jaialdia" antolatzeko.
- **Erref.- 474/13.- HERRI URRATS.-** Diru-laguntza ematea Herri Urrats 2013 ospatzeko.
- **Erref. 475/13.- Amurrioko Aresketa Ikastola.-** Diru-laguntza ematea Araba Euskaraz 2013 egiteko.
- **Erref.- 476/13.- NAFARROA OINEZ.-** Diru-laguntza ematea Nafarroa Oinez 2013 egiteko.
- **Erref.- 477-13.- Kreditu-transferentziari dagokion espedientea.**
- **Erref.- 478-13.- Alkatearen kreditu gehigarriari dagokion espedientea.**

- **Erref.- 479/13.- Erbiko Administrazio Batzarra.-** Diru-laguntza ematea Erbiko bidea hobetzeko obraren zuzendaritzak eta segurtasunaren eta osasunaren koordinazioak sortutako gastuak finantzatzeko.
- **Erref.- 1/14.-** Eraikin publikoak garbitzeko zerbitzuaren kontratua aldatzea, Comercial de Limpiezas Villar enpresari esleitutakoa, Haurreskolako garbiketa gaineratzeko.
- **Erref.- 2/14.- RVM-** Eskatu zaio aurkeztutako obra lizentziaren eskaerari buruzko dokumentazio gehiago aurkeztea.
- **Erref.- 3/14.- Istel Radiobide, SL.-** Sailkatutako jardueraren alde aurreko jakinarazpena, Izorian dagoen lurzatian telekomunikazioetarako lotura-sistema ezartzeko.
- **Erref.- 4/14.- Istel Radiobide, SL.-** Udal Lizentzia ematea, Izorian dagoen lurzatian telekomunikazioetarako lotura-sistema ezartzeko.
- **Erref.- 5/14.- SRDYA.-** Fidantza eskatu zaio Menagarain eraikuntza osagarriko obraren eraikuntza eta eraisketen hondakinak kudeatzeko.
- **Erref.- 6/14.- Izoriako Administrazio Batzarra.-** Sailkatutako jardueraren alde aurreko jakinarazpena, Izoriako Ripa auzoko 40. zenbakian “Gizarte Zentroa” gauzatzeko.
- **Erref 7/14.- DAG.-** Obrarako Udal Lizentzia ematea, Menagarain dagoen eraikinaren fatxadan oinezkoentzako atea irekitzeko.
- **Erref.- 8/14.- JBY - MJOL - MBY eta FBY.-** Udal Lizentzia ematea Izorian landa onibarrak zatikatzeko eta eransteke.
- **Erref.- 9/14.- 2013ko aurrekontua luzatzea 2014 ekitaldian.**
- **Erref.- 10/14.- Alansu, SL.** 2013ko JEZren likidazioen inguruan egindako erreklamazioari buruzko ebazpena.
- **Erref.- 11/14.- Onestea Etxaurren Ikastolako obren aurrekontua, Eusko Jaurlaritzari diru-laguntza eskatzeko.**
- **Erref.- 12/14.- SRDYA.-** Obretarako Udal Lizentzia ematea, Menagarain eraikin osagarria eraikitzeko.
- **Erref.- 13/14.- FCB.-** Udal Lizentzia ematea Ozekan landa onibarrak lurzatitan banatzeko.
- **Erref.- 14/14.- DUI.-** Udal Lizentzia ematea Menoion onibarrak banatzeko eta eransteke.
- **Erref.- 15/14.- MKPM, AAH eta JMZM.-** Udal Lizentzia ematea Zuatzan onibarrak banatzeko eta eransteke.
- **Erref.- 16/14.- Lehen alkateordeari funtzioak uztea, 2014ko urtarrilaren 22tik urtarrilaren 24ra bitartean.**
- **Erref.- 17/14.- MPAG.-** Eskatu zaio eskatutako obra lizentziaren eskaerari buruzko dokumentazio gehiago aurkeztea.
- **Erref.- 18/14.- Onestea Arbol Malato Plan Partzialeko hondakin-uren araztegirako obren likidazioaren 3. egiaztagiria.**
- **Erref.- 19/14.- ARDL C.-** Jarduera lizentzia ematea, Sojon dagoen “haragi-behiak eta ardiak ustiatzeko nabea”.
- **Erref.- 20/14.- Key Words SL.-** Sailkatutako jardueraren alde aurreko jakinarazpena, Izoriako Ripa auzoko 67. zenbakian “Kultura Eremua” gauzatzeko.
- **Erref.- 21/14.- Onestea F/2013/14 zenbakiko fakturen kontabilitate zerrenda.**
- **Erref.- 22/14.- Etxegoingo Administrazio Batzarra.-** 2013ko herriko jaiak egiteko gastuetarako emandako diru-laguntza itzultzeko prozedura abiaraztea.

- **Erref.- 23/14.- Ozekako Administrazio Batzarra.-** 2013ko herriko jaiak egiteko gastuetarako emandako diru-laguntza itzultzeko prozedura abiaraztea.
- **Erref.- 24/14.- Erbiko Administrazio Batzarra.-** 2013ko herriko jaiak egiteko gastuetarako emandako diru-laguntza itzultzeko prozedura abiaraztea.

Udalbatza Alkatetza Dekretuen jakitun geratu da.

6.- Galde-eskeak.

* Garbiñe andreak (EAJ) aipatu du Luiaondoko erabilera anitzeko eraikinaren (Patxita Etxea) proiektua onetsi zenean, azpimarratu egin zirela proiektuan ikusten ziren arazoak, eta konpondu beharreko kontuak jasota gera daitezen, Arabako Foru Aldundiak Udalarari bidali dion idazkia irakurri du, egin beharreko konponketak zerrendatuta.

Idazki hori aktarekin batera gaineratu da, II. ERANSKIN gisa.

Josu jaunak (BILDU) esan du zuzenketa horiek guztiak idazketa-taldeari pasa zaizkiola, zuzendu direla eta dagoeneko ikusi-onetsitako proiektu dagoela. Horren kopia bidali zaio B. L.de A. andreari, berrikus dezan eta ados dagoen esan dezan.

Josuk aipatu du berak eman ziola proiektua B.-ri eta zelan ikusten zuen galdetu ziola. Erantzun zion proiektu hori beste edozein bezalakoa zela, eta akatsak zituela, denek dituzten moduan.

José Luis jaunak (PP) aipatu du talde guztiei CD bat eman zaiela, baina ezin duela ireki, eta paperean jasotako kopia eskatu du, berrikusi ahal izateko. Adierazi du uste duela partida batzuek prezio barregarriak dituztela.

Jorrazteko beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilera bukatutzat eman du hemeretziak eta hogeita hamar minutu zirenean, eta aztertutako guztia eta hartutako erabakiak jasota gera daitezen, akta hau egin dut eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Arespalditzan, bi mila eta hamalauko urtarrilaren hogeita hamarrean.

O. E.
ALKATE-UDALBURUA,

IDAZKARIA,

Izpta.: Josu Artetxe Arana

Izpta.: Naiara Lazpita Marcos.

I. ERANSKINA . -

URGENTZIAZKO MOZIOA

Urgentziaren justifikazioa: Aldundiak egindako eskaerari otsailaren 1a baina lehenago erantzuteko beharra.

Toki Administrazio Foru Sailak gutun bat helarazi die Toki Erakundeek 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera Erabiltzaileentzako Arreta Informatiko Zerbitzua eskaintzeari utziko diola planteatuz. Aipatu zerbitzua Arabako Kalkulu Gunearen bitartez jasotzeko aukera eskaintzen du Foru Sailak gutun honetan, otsailaren 1erako erantzuna eskatuz. Hori bai, Kalkulu gunea foru erakundea izanik ere, Toki Erakundeek aurre gin beharko diote kostuari, 142.500 euro guztira.

Azken urteetan administrazioak hainbat programa informatiko ezartzera behartu ditu toki erakundeak, zenbait funtzio garatzeko (kontabilitatea,...) zein gorako administrazioekin harremanak bideratzeko. Hortaz, Zerbitzu Informatiko hau oinarritzkoa da udal eta koadrila guztientzako. Eta horrela da gorako administrazioek udal eta koadrilen funtzionamendua programa hauetara moldatzeko beharra ezarri dutelako, eta horregatik, orain arte Foru Administrazioak bere gain hartzen zuen programa hauen mantenu eta arreta zerbitzuak.

Guzti hori kontuan izanik lekuz kanpo dago, eta bidegabekoa da, Toki Erakundeak mantenu eta arreta zerbitzu horien kostea bere gain hartu behar izatea. Ez dagokie Toki Erakundeek, eta ez dute bere gain hartzeko bitarteko propioirik. Are gehiago, kontuan hartuta Aldundiaren aurtengo Aurrekontua %4a egin duela gora, aurreko urtekoarekin konparatuta, ulergaitza suertatzen da Toki Erakundeentzako oinarritzkoak diren zerbitzuetan murrizketak planteatzea.

Aldundiak zerbitzu hau bere gain hartzeko giza baliabide propioak ditu, azken urteetan egin duten berberak, eta jakinda bere diru sarrerak gora egin dutela ez dauka zerbitzu hau ematen jarraitzeko bitarteko materialen falta. Udalak eta Koadrilak dira giza baliabiderik ez dituztenak, eta bere finantziarioa aurreko urtearekin konparatuta behera egin du, hortaz, ez da bidezkoa ez dagokien gastuak bere gain hartzea planteatzea.

Guzti hau kontuan hartuta Aldundiaren eskaerari premia erantzutea beharrezkoa da, Toki Erakundeek aldetik aipatu zerbitzua mantentzeko beharra adierazi eta kostea udal eta koadrilen bizkarrean utzi beharrean Aldundiak bere gain hartu behar duela eskatzeko.

Aipatu guztia kontuan hartuta honako mozioa aurkezten dugu, udal osoko bilkurak eztabaida eta onar dezan:

1.- Udal honek zera exijitu nahi dio Arabako Foru Aldundiari: Toki Erakundeek eskaintzen zien Erabiltzaileentzako Arreta Informatiko Zerbitzua bere horretan mantendu dezala, orain arte ematen zuen baldintza berdinetan eta orain arte bezala kostea bere gain hartuta.

2.- Udal honek aipatu eskaera premia helaraziko dio Aldundiari, Toki Administrazio Foru Sailak bidalitako gutunean egiten zuen eskaerari erantzun legez.




Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

www.alava.net

15 ENE 2014

Esp zenb / N° exp: 12/10224-P

ANEXO II



UDALEKO ALKATE-LEHENDAKARI JN./AND.
ALCALDE/SA-PRESIDENTE/A
DEL AYUNTAMIENTO DE AYALA
01476 RESPALDIZA
(ARABA / ÁLAVA)

Erakunde horrek "Luiaondoko erabilera anitzeko eraikineko" obrari buruz bidalitako agiriak aztertutik, jakinarazten dizugu ez direla onartu aurkeztutako agiriak.

1.- Administrazio agiriei dagokienez, ondoko hau aurkeztu beharko da:

- Erakundeak behin betiko dokumentu teknikoak onartzea (1. inprimakia).

2.- Dokumentu teknikoari dagokionez, ondoko puntu hauek zuzendu behar dira:

- Memorian, obrako plan adierazgarri bat sartu behar da, denbora eta kostua aurreikusten duena, hala badagokio.

- Lurraren azterlan geoteknikoa erantsi behar zaio, edo, hala dagokionean, hura obraren izaerarekin bateraezina delako egiaztaketa.

- *Apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuak, hiri inguruneetako eremu publikoetako irisgarritasun baldintzen inguruko arau teknikoak onartzen dituenak, ezarritako baldintzak betetzeari buruz:*

Memoriaren barruan sartu den justifikazioko fitxak, proiektatu eta planoetan jasotakoarekin bat ez datozen datuak dauzka. Hain zuzen ere, eraikineko ibilbide nagusi eta pasabide nagusien zabalera libreari, komunaren albo bateko zabalera libreari eta aldagelaren neurrien justifikazioari dagokienez.

Eskaileraren bi alboetan eskubanda bikoitza

Analizada la documentación enviada por esa entidad de la obra de "Edificio multiusos en Luiaondo" se le comunica que no se acepta la documentación aportada.

1.- En cuanto a la documentación administrativa se deberá presentar:

- Aprobación del documento técnico definitivo por Entidad (Impreso 1).

2.- En cuanto al documento técnico se deberán subsanar los siguientes aspectos:

- En la memoria se ha de incluir un plan de obra de carácter indicativo con previsión, en su caso, del tiempo y coste.

- Se ha de incorporar el Estudio Geotécnico del terreno, o justificación en su caso de su incompatibilidad con la naturaleza de la obra.

- En cuanto al cumplimiento de las condiciones establecidas en el *Decreto 68/2000 de 11 de abril, por el que se aprueban las normas técnicas sobre condiciones de accesibilidad de los entornos urbanos, espacios públicos:*

La ficha justificativa que se ha incluido en la memoria contiene datos que no se corresponden con lo proyectado y reflejado en planos. En concreto, en lo referente al ancho libre de los itinerarios principales y pasillos principales del edificio, el ancho libre a uno de los lados del inodoro y la justificación de las dimensiones del vestuario.

Se ha de colocar doble pasamanos a ambos

Toki Administrazioaren
Saila
Departamento de Administración
Local

Toki Administrazioaren
Zuzendaritza
Dirección de Administración
Local

Probintzia Plaza, 5-2^a
01001 Vitoria-Gasteiz
Tel. 945 18 18 18
Fax: 945 18 17 73



ipini behar da.

- EKTko DB-SI –Suteetako segurtasuna- betetzea egiaztatzeari dagokionez, ondoko puntu hauek berraztertu behar dira:

Hegoaldeko fatxadako hutsune batzuen arteko distantzia sute sektore desberdinetako (kasu honetan beheko solairua eta goikoak diren bezala) hutsuneen artean finkatutako gutxienez baina txikiagoa da.

Eskaieraren zabalera justifikazio bat jaso behar da, eraikinean geroko faseetan kokatutako diren erabileretarako egindako planteamenduetan bat datorren goiko solairuen okupazio hipotesi batean oinarritua.

- Segurtasun eta osasun azterlanean jasotzen den obra gauzatzeko aurrekontuaren datua ez dator bat proiektua gauzatzeko aurrekontuarekin.

- Aurrekontuari dagokionez, ondoko puntu hauek berraztertu behar dira:

Aurrekontuaren laburpenean jasotzen den segurtasun eta osasun kapituluaren zenbatekoa ez dator bat proiektuko segurtasun eta osasun azterlanean jasotako aurrekontuarekin.

Proiektuan jasotzen den paldo gaineko kanpoko argiteria ez da jasotzen aurrekontuan.

Urbanizazio kanalizazioen partiden deskribapenak ez datoz bat I-10 planoko sekzioekin.

Inkoherentziak nabaritu dira 02.03.02, 02.03.03, 02.03.04, 02.03.05, 02.03.06 eta 02.03.07 partiden eta planoetan grafiatutakoaren artean.

Eranskinetako estalkitiki euri urak hustutzeko sistema ez da jasotzen aurrekontuan.

Komunetako shuntak ez dira jasotzen aurrekontuan.

Kanpoko zurajea aurrekontuan bi aldiz jasota dago: egurrezkoa eta aluminiozkoa, planoen eta memoriaren arabera aluminiozkoa delarik. Gainera, neurketak eta unitateak ez datoz bat planoekin.

Beiren partidak zurajeko partidetan egiten diren zuzenketetara moldatu beharko dira.

03.01.07 eta 03.01.08 partidak bikoiztuta

lados de la escalera.

- En cuanto a la justificación del cumplimiento del DB-SI.-*Seguridad en caso de incendio.*, del CTE se han de revisar los siguientes aspectos:

La distancia entre algunos de los huecos de la fachada sur es inferior a la mínima establecida entre huecos pertenecientes a distintos sectores de incendio, como son en este caso la planta baja y las superiores.

Se ha de incluir una justificación del ancho de la escalera basado en una hipótesis de ocupación de las plantas superiores coherente con el planteamiento hecho para los usos a ubicar en el edificio en fases posteriores.

- El dato del presupuesto de ejecución de la obra incluído en el Estudio de Seguridad y Salud no se corresponden con el presupuesto de ejecución del proyecto.

- En cuanto al presupuesto se han de revisar los siguientes aspectos:

El importe del capítulo de Seguridad y Salud recogido en el resumen del presupuesto no se corresponde con el del presupuesto incluído en el Estudio de Seguridad y Salud del proyecto.

El alumbrado exterior sobre báculos proyectado no está contemplado en el presupuesto.

Las descripciones de las partidas de canalizaciones de urbanización no se corresponden con las secciones del plano I-10.

Se ha detectado incoherencia entre las partidas 02.03.02; 02.03.03; 02.03.04; 02.03.05; 02.03.06 y 02.03.07 y lo grafiado en planos.

El sistema de evacuación de aguas pluviales de la cubierta del Anexo no está contemplado en el presupuesto.

Los shunts de los aseos no están contemplados en el presupuesto.

La carpintería exterior: está doblemente presupuestada: de madera y de aluminio, cuando según planos y memoria es de aluminio. Además, las mediciones y las unidades no son coherentes con los planos.

Las partidas de vidrios, habrán de adaptarse a las correcciones que se hagan en las partidas de carpintería.

Las partidas 03.01.07 y 03.01.08 están



daude.

03.07.05.01etik 03.07.05.05era arteko partiden banakapena falta da. Hortaz, ezin daiteke zehaztu zeri dagokion 03.7.05.03 partida.

Inkoherentziak nabaritu dira 03.10.01, 03.10.02, 03.10.03, 03.10.04 eta 03.10.05 partiden eta planoetan grafiatutakoaren artean.

Suteen aurkako babes sistemako kanpoko sirena ez da jasotzen aurrekontuan.

duplicadas.

Falta el descompuesto de las partidas 03.07.05.01 a 03.07.05.05, con lo que no se puede identificar a qué se corresponde la partida 03.07.05.03.

Se han detectado incoherencias entre las partidas 03.10.01; 03.10.02; 03.10.03; 03.10.04 y 03.10.05 y lo grafiado en el plano.

La sirena exterior del sistema de protección contra incendios no está contemplada en el presupuesto.

- Esku-hartze zonaren kalifikazio xehatuko planoak jaso beharko da, indarrean dagoen udal planeamenduaren barruan dagoena.

- Altxaeretako leiho batzuen neurriak ez datoz bat kanpoko zurajearen planoan grafiatutakoekin.

- Proiektua dagokion lanbide elkargoak era egokian ikus-onetsita egon beharko da, dirulaguntza ematen duen foru aginduaren 1. eranskinean adierazten denarekin bat etorriz.

- Proiektuaren dokumentazio grafikoa euskarri informatikoan eskuratuko da (dxf edo dwg luzapena duten fitxategietan).

Aurrekontua eta proiektuko neurketak euskarri informatikoan eskuratuko dira (*.bc3 truke estandarreko luzapena duten fitxategietan).

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urtarrilaren 09a

- Se deberá incluir el plano de calificación pormenorizada de la zona de intervención, contenido en el planeamiento municipal vigente.

- Las dimensiones de algunas ventanas de los alzados no coinciden con las grafiadas en el plano de carpintería exterior.

- El proyecto deberá estar convenientemente visado por el Colegio Profesional correspondiente, conforme a lo que se indica en el Anexo 1 de la Orden Foral de concesión de la subvención.

- La documentación gráfica del proyecto, se entregará en soporte informático (en ficheros con extensión dxf o dwg).

El presupuesto y las mediciones del proyecto se entregarán en soporte informático (ficheros con extensión de intercambio estándar *.bc3).

Vitoria-Gasteiz, 9 de enero de 2014


Lorenzo Arnaiz Armenia

Toki Administrazioaren zuzendaria
Director de Administración Local

Arabako
Foru Arduradua
Toki Administrazioaren
Batzarria



Diputación
Foral de Álava
Departamento de
Administración Local